



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urriaren 26a

127. ZK.

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzkoa (4. or.).

B SAILA:

**Foru lege proposamenak:**

—Irakasleen Babesarako Foru Lege proposamena. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (13. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baititu Bardeako tiro poligonoan urriaren 17an eta 19an egin diren su errealeko maniobra militarrek, eta tiro poligonoa eraistea eskatzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie atzo Melillako hesian hil zen pertsonaren familia, lagun eta hurbileko emigrante-komunitateari. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, nekazaritzako lanak egiteko lan-poltsan sartuko diren pertsonen kontratazioa eta lan-baldintzak kontrolatzeko mekanismoei buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (19. or.).

—Galdera, Skolae izeneko hezkidetza-programa ezartzeko araudiari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).

—Galdera, Skolae izeneko hezkidetza-programan familiek parte hartzeari buruzko araudia ez betetzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).

—Galdera, Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 4ko 5956/2017 Autoaren ondorioei buruzkoa (horren bidez, errefusatu egin da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren uztailaren 5eko 337/2017 zenbakiko epaiaren aurka Nafarroako Gobernuak aurkeztutako kasazio-errekurtsoa). Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).

- Galdera, Nafarroako errepideen sarerako finantza-iturrien gaineko azterlanean egindako lanen balorazioari eta datu-aurrerapenari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, amatasun eta aitatasunarengatiko prestazioetako PFEZaren atxikipena itzultzeari dagokionez Euskal Foru Ogasunek egindako iragarpenari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (22. or.).
- Galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-informazioko sistemen hobekuntza bultzatze dezan, endometriosiari dagokionez. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (23. or.).
- Galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da udalen musika eskolen finantzaketa autonomikoa berreskuratu dezan. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (23. or.).
- Galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur Hezkuntzako zikloa Hezkuntza Departamentuak kudeatu dezan. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (24. or.).
- Galdera, eskumen berriak eskuratzeko aldera Estatuko Gobernuaren aitzinean egindako urratsei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Osoko Bilkurak onetsitako mozioa betetze aldera 787/2001 Foru Agindua aldatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Esako urtegiaren eskuineko mazelaren egonkortasunaren eta segurtasun-ebaluazioaren gaineko azterlana kontratatzeari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, Eneko Suescun Muza jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, Fernando Pagola jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, Eduardo García jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, Anne Sánchez andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, María José Oraa andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, Patxiku Ganboa Zabalo jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, Joseba Razkin Telleria jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, Edurne Etxeberria Telletxea andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, Marian Lecumberri Navascués andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, Ana López-Araus Baines andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroetako aholkularien izendapenaren datari eta lanean eman duten denborari buruz Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (32. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroetako aholkulari-lanpostuak direla-eta Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (32. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroak direla-eta legegintzaldi honetan Nafarroako Parlamentura igorritako informazioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (33. or.).
- Galdera, Pilar Armendáriz Carro andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (33. or.).
- Galdera, Eva Agos Esparza andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (34. or.).
- Galdera, Ion Rey Bacaicoa jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (34. or.).
- Galdera, Beatriz Vergara andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (35. or.).

- Galdera, Sagrario Gil Pérez andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (35. or.).
- Galdera, Javier Arellano Santos jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (36. or.).
- Galdera, Pilar Santos andreak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (36. or.).
- Galdera, Garikoitz Iñigo Olondriz jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (37. or.).
- Galdera, José Azpirotz Zilbeti jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (37. or.).
- Galdera, David Fernández Pérez jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (38. or.).
- Galdera, ekonomiaren bilakaera eta bilakaera horrek Nafarroan duen eragina berehala ezagutzeko Nafarroako Gobenuak dauzkan kontrol mekanismoei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (38. or.).
- Galdera, gaztelaniazko “El Carrascal” toponimoari dagokion euskal ordainari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (39. or.).
- Galdera, Nafarroako taxiaren sektorean intrusismo profesionala prebenitzeko neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (39. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Iruñeko arreta-bulegoak ixteko arrazoiei buruzkoa. Galdera erretiratzea (40. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zertan den Nazio Batuen Erakundeak Palestinako errefuxiatuentzat duen Agentziari (UNRWA) aparteko ekarpena egiteari eta finantzaketarako tresna egonkor bat aztertzeari buruz hartutako erabakiaren betetzea. Galdera erretiratzea (40. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2018ko urriaren 17an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Xedatzea Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

**2.** Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hilabete bateko epea irekiko da, **2018ko azaroaren 20ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektua**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Gaur egungo gizarteetan memoria ezinbesteko tresna bilakatu da egiazko bizikidetzatza justu eta baketsua eraikitze bidean aurrera egiteko. Ira-

gan hurbilean demokraziaren kontrako erregimenen indarkeriaren traumak astindu dituen gizarteetan, ahanzturaz eta memoria ezaz jokatzeko guztiz bidegabea da biktimekin. Memoria eta gertatutakoaren oroimena dira bide bakarrak traumaz jabetzeko, biktimen minarekin eta egoera bidegabeekin enpatia sentitzeko, biktimen egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea gauzatuko duten politika publikoak garatzeko; horrenbestez, bide horretatik lortuko da egiazko bizikidetzatza, begirada etorkizunean paratzen duena eta halakorik berriz ez gertatzeko bermeak ezartzeko lanari helduko diona. Izan ere, memoria mota asko daude, dudarik gabe, baina justua izan behar du ezinbestez, eta iragana konpromisotik aztertu: konpromisoa giza eskubideekin, pertsonaren duintasunarekin, demokraziarekin, berdintasunarekin, justizia sozialarekin eta askatasunarekin.

Memoria indarkeria eta trauma gogoratzen harago doa; iraganarekin lotutako zerbait baino gehiago da. Memoria, lehenengo eta behin, etorkizunari dagokio, eta, gizarte demokratikoetan, estuki eta fermuki loturik dago bakean eta giza eskubideetan oinarritutako kulturaren sustapenarekin. Memoria ezinbesteko tresna da hainbat balio gizarte osoan sustatu eta hedatzeko, askatasuna, begirunea, tolerantzia, negoziatzea eta akordioa, hain zuzen ere, bai eta horiek hurrengo belaunaldiei transmititzeko ere.

Gertatutakoaren memoria transmititzen da artxiboetan gordetako agirien bidez, gertaera haieko protagonista eta lekuko izan zirenen ahotik, eta familien baitan gorde eta helarazten den errelatoan; irudiak, soinu grabaketak eta ikus-entzunezkoak ere transmisio bideak dira. Finean, memoria gureganaino iritsi diren arrasto bidez transmititzen da. Baina tokiak ere memoriaren transmisiorako bideak dira, gure gizartea bakean eta askatasunez garatzea baldintzatu eta eragotzi zuten gertaera latz eta tragiko haien tokiak alegia: hilobi komunak, non milaka lagun ehortzi bai-

tzituzten, bortxaz desagerrarazi eta hil ondoren; bidegabeki espetxeratu eta errepresaliatutako milaka lagunentzako kartzela eta errepresio tokiak; edo herri-lanak, beren borondatearen kontra lan egitera behartutako presoek eraiki zituztenak, legez eratu eta herritarrek libreki aukeratu zuten Errepublikaren alde egiteagatik zigorra jaso ondoren.

Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiak dira, izuarekin eta indarkeriarekin lotutako tokiak, zehinetan giza eskubideen era guztietako urraketak egin baitzituzten botere zilegiaren kontra altxatu, eta indarkeriaz baliatu zirenek beren ideiak, ideologia eta proiektu politikoa defendatu eta inposatzeko.

Eta Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiak dira, halaber, demokrazian bizitako hamarkada hauetan familiek, memoriaren aldeko elkarteek eta zenbait toki entitatek eta erakundek eraikitako oroigarriak. Indarkeria bidegabe eta ez-zilegiaren ondorioak pairatu zituzten milaka pertsona haien oroimenez sortutako gunek dira. Memoriaren legatu hori gordetzeko, biktimei ohore egiteko, haien familiei erreparazioa emateko, eta etorkizuneko belaunaldiei bakearen, bizikidetzaren eta errespetuaren balioak transmititzeko asmoz egindako tokiak dira.

Foru lege honen helburua memoriaren toki horiek babestea da, haien seinaleztapena eta zainketa arautzea, eta haiek ezagutzera ematea, terrorearen toki izandakoak oroimenerako eta bakearen eta bizikidetzaren balioak transmititzeko gunek bilaka daitezten.

## I. TITULUA

### Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako memoria historikoaren tokiak deklaratu, babestu, zaindu eta haien berri zabaltzea, memoriaren transmisiorako gunek izan daitezten eta bakean eta bizikidetzan oinarritutako kultura sustatzeko lagundu dezaten, balio hauekin bat:

a) Giza eskubideen eta biktimen eskubide hauen errespetua: egia, justizia eta erreparazioa izatekoa eta berriz ez gertatzeko bermeak ezartzekoa.

b) Memoria ezinbesteko tresna dela gizarte etikoagoak, justuagoak eta demokratikoagoak eraikitzeko, gure iragan traumatikoari modu kritikoa begiratzen diotenak eta biktimen erreparazioaren alde lan egiten dutenak.

c) Begirunea, tolerantzia, negoziazioa, akordioa eta elkartasuna sustatzea, egiazko bizikidetzaz justu eta baketsua eraikitzeko modua den aldetik.

**2. artikulua.** Nafarroako memoria historikoaren tokiak.

1. Memoria historikoaren tokia gunek fisiko bat da, Nafarroan dagoena eta halakotzat deklaratu eta inskribatuta, eta Foru Komunitatearen intereskoa, memoriaren ondare historikoa den aldetik, bertan garrantzi bereziko gertaerak izan zirelako, 1936ko kolpe militarren eta ondoko errepresio frankistaren ondorioz herritarren kontra erabilitako errepresioarekin eta bortxakariarekin lotutakoak. Hartara, halakotzat deklaratu ahalko dira honakoak:

a) 1936ko kolpe militarren ondorekin eta haren ondorioz desagerrarazitakoak eta fusilatutakoak ehortzi zituzten hobiak edo ehorzketa-lekuak, kolektiboak nahiz banakoak.

b) Indarkeria eta errepresio frankista jasan zutenak atxilotzeko eta hiltzeko tokiak.

c) Frankismoan preso egon zirenen bortxazko lanak baliatuz eraikitako herri-lanak.

2. Era berean, Nafarroako memoria historikoaren tokia da halakotzat deklaratu eta inskribatutako edozein toki, gertaera haiekin lotura zuzen eta historikoki izan gabe ere, biktimen familiek, memoriaren aldeko elkarteek, erakundeek eta administrazio publikoek gerora sortutakoa errepresio haren biktimentzako oroimen, aitortza eta erreparazio gisa.

3. Nafarroako memoria historikoaren tokiak, alderdi fisikoaz gain, biktimentzako omenaldi eta erreparazio gunek dira, eta foru lege honek ematen dien babes berezia izanen dutenez, kasu bakoitzean beharrezkotzat diren neurriak aplikatuko zaizkie, kontuan hartuz haien kokalekua, bertan gertatutakoaren garrantzia, egoera, hirigintza aldeko egokitasuna eta haien eragin ekonomiko eta soziala, eta beti zainduko da haien izaera, memoriaren eta erreparazioaren aldekoa.

#### 3. artikulua. Printzipio orokorrak.

Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumene esparruan, honako printzipio hauen arabera jardunen du memoria historikoaren tokiei dagokienez:

a) Babesaren izaera orokorra. Botere publikoaren eta herritarren betebeharra da foru lege honetan ezarritako neurriak hartzea Nafarroako memoria historikoaren tokiak babesteko.

b) Erakundeen arteko lankidetzak. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lankidetzan jardunen du Estatuko Administrazio Orokorrekin eta toki entitateekin Nafarroako memoria historikoaren tokiak deklaratu, babestu, zaindu eta haien berri zabaltzeko.

c) Ondasunen titularrekiko elkarlana. Nafarroako Administrazio Publikoak elkarlanean arituko dira, foru lege honetan ezarritakoaren esparruan, Nafarroako memoria historikoaren tokien parte diren ondasunen titularrekin, partikularrak nahiz erakundeak izan, horiek deklaratu, babestu, zaindu eta haien berri zabaltzeko.

d) Sustapena. Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasoko da Nafarroako memoria historikoaren tokiak babestu eta zaintzea, baita haien zabalkundea ere, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetako aukeren arabera.

e) Irisgarritasuna. Foru lege honetan eta irisgarritasun unibertsalerako baldintzei buruzko araudian ezarritako baldintzeekin, Nafarroako memoria historikoaren tokiak irisgarriak izanen dira pertsona guztientzat, eta aukera berdintasuna eta diskriminazio eza bermatuko dira, ezagutu eta errespetatu daitezela laguntzeko.

f) Zabalkundea. Nafarroako Administrazio Publikoek Nafarroako memoria historikoaren tokiak sustatuko dituzte eta haien zabalkunde-lana egiten dute. Haien buruzko ikasketak, bestalde, Nafarroako hezkuntza-sistemaren barnean egon dira.

g) Berdintasuna. Nafarroako Administrazio Publikoek aintzat hartuko dute gizon eta emakumeen arteko genero berdintasuna, eta genero ikuspegia erantsiko dute, Nafarroako memoria historikoaren tokiei buruzko lanean.

**4. artikulua.** Memoria historikoa terminoaren esparru kronologikoa.

1. Foru lege honen ondorioetarako, memoria historikoak hartzen duen aldi kronologikoa 1936ko uztaileko kolpe militarretik 1978ko abenduaren 29ko Konstituzioak indarra hartu artekoa da.

2. Data horiek ez dira kontuan hartuko foru lege honen 2. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren memoriaren aldeko guneen kasuan.

**5. artikulua.** Eskumenak.

1. Foru Komunitateko Administrazioak honako eskumen hauek ditu Nafarroako memoria historikoaren tokiei dagokionez:

a) Haien zainketa eta babesa bermatzea, izae-ra orokorrekin.

b) Haien aldeko kautelazko neurriak hartzea, nahitaezko desjabetzea barne, beharrezkoa bada.

c) Haien sustapena eta zabalkundea.

d) Zehapen ahalmena erabiltzea, foru lege honetan ezarritako baldintzetan.

e) Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroa kudeatzea.

f) Foru lege honek berariaz esleitzen dizkion gainerako eskumenak.

2. Foru Komunitateko Administrazioaren eskumen horiek memoria historikoaren eskumena duen departamentuaren bidez beteko dira, Nafarroako Gobernuari kide anitzeko organo gisa dagozkionak eta gainerako departamentuekin koordinatzea ukatu gabe.

3. Era berean, Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak aholku lanak beteko ditu departamentu eskudunarentzat. Batzorde hori azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen bidez sortu zen.

## II. TITULUA

### Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroa

**6. artikulua.** Eraketa, izaera eta edukia.

1. Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroa eratzen da, foru lege honetan definitutako ezaugarriak izateagatik halakotzat deklaratzaren gune, higiezin edo aurkintzen publikizitate eta kontrola egiteko tresna izan dadin.

2. Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroak eduki hau izanen du:

a) Memoriaren toki inskribatu bakoitzak bere folio edo fitxa izanen du erregistroan.

b) Bertan jaso behar dira prozedurari hasiera emateko ebazpena eta Nafarroako memoria historikoaren toki bakoitzaren deklarazioa eta inskripzio ordena ematen duena. Horrekin batera, erregistroko edukia aldatzen duten ebazpenak ere agertu behar dira.

c) Toki bakoitzari dagokionez, hura identifikatzaren gune ezaugarriak eta haren gainean ezartzen diren behin-behineko, kautelazko eta behin betiko neurriak deskribatuko dira.

d) Memoriaren toki gisa identifikatutako ondasuren eragiten dieten eskualdaketak eta esku-haritzeak inskribatuko dira.

e) Ondasun inskribatuetan eragina duten administrazio egintza guztiak jasoko dira.

3. Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroa publikoa da eta kontsulta, telematikoa nahiz bertatik bertarakoa, doakoa izanen da.

4. Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroa antolatuta, kudeatu eta haren zabalkunde egitea memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuari dagokio, ukatu gabe beste departamentu batzuek ondare historiko eta kulturalaren arloan dituzten eskumenak.

**7. artikulua.** Deklarazioa eta inskripzioa egiteko prozedura.

Nafarroako memoria historikoaren toki baten deklarazioa eta inskripzioa prozedura honi jarraituz egingen dira:

a) Prozedurari hasiera emanen zaio ofizioz, organo eskudunaren ebazpen bidez edo edozein pertsona fisiko nahiz juridikoren eskaera arrazoi-tuaren ondorioz. Azken kasu horretan, hasiera emateko ebazpena hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da; hala ez bada, eskaera ezetsi dela ulertu behar da.

Hasiera emateko ebazpenak hauek jasoko ditu gutxienez:

- Tokiaren identifikazioa.
- Deklarazioa justifikatzen duten balio material, historiko edo sinbolikoen identifikazioa.
- Deklarazioaren eta inskripzioaren xede den ondasunaren zatien deskribapena eta zehaztapena.
- Tokiaren mugaketa kartografikoa, koordentatu geografikoak barne.
- Ondasunaren jabeen eta ukituta gerta daitezkeen pertsona fisiko eta juridikoen identifikazioa.
- Zainketa, seinaleztapen eta zabalkunderako aplikatzen ahal diren neurri partikularrak eta ekin-tzak zehaztea.
- Ondasuna babestu eta zaintzeko beharrezkoak izan daitezkeen kautelazko neurriak zehaztea.

b) Deklarazio eta inskripziorako prozedurari hasiera ematen dion ebazpenak berekin ekarriko du ondasunaren prebentziozko idatzoharra egitea Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan, eta berehalako eta zuzeneko ondorioa izanen da foru lege honetan ezarritako babes araubide behin-behinekoz aplikatzea.

c) Hasiera emateko ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

d) Deklarazio eta inskripziorako prozeduran nahitaezkoak izanen dira tramite hauek: jendaurrean jartzekoa eta entzunaldia ematekoa bai zuzenean ukitutako partikularrei bai tokia kokatuta dagoen toki entitateari.

e) Entzunaldia emateko tramitea eta jendaurrean jartzekoa amaituta, espedientea Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikora igorriko da (azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen bidez sortutakoa), hiru hilabeteko epean gehenez ere nahitaezko txosten loteslea eman dezan, deklarazioa eta erregistroko inskripzioa egiteko.

f) Deklarazioa eta erregistroko inskripzioa egiteko prozeduraren ebazpena Nafarroako Gobernuak hartu beharreko erabakiaren bidez emanen da, memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak proposamena egin ondoren.

g) Erabaki hori jakinaraziko zaie zuzenean ukitutako interesdunei, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da; ondoren, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatuko da.

h) Deklarazioa eta inskripzioak bidezkoak ez badira, prozedurari hasiera eman dion organoak hura amaitzea eta prebentziozko idatzoharra ezabatzea ebatziko du.

i) Prozedurari hasiera ematen zaionetik hamabi hilabete iragaten badira ebazpena eman eta jakinarazi gabe, prozedura iraungi egingen da. Prozedura iraungi dela behin deklaratu ondoren, ezin izanen da ondasun horren gaineko prozedura berri bati hasiera eman hurrengo hiru urteetan, non ez den ondasunaren titularrak eskatuta egingen.

**8. artikulua.** Inskripzioaren aldaketa eta eze-reztea.

1. Memoriaren arloko eskumena duen departamentuak proposatzen ahalko du Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatutako tokien inskripzioa aldatzea, bai eta eze-reztea ere, inskripzioa eragin zuten inguruabarrak aldatu edo desagertzen badira, kasuan kasukoa.

2. Tokien inskripzioa aldatu eta eze-rezteko prozedura horien deklarazio eta inskripziorako aurreko artikuluan ezarritako bera izanen da.

**9. artikulua.** Inskripzioaren eta prebentziozko idatzoharraren ondorioak.

1. Nafarroako memoria historikoaren tokiaren deklarazioak eta Erregistroan haren inskripzioa edo prebentziozko idatzoharra egiteak aitortzea

berezia ematea eta foru lege honetan ezarritako babes araubidea aplikatzea ekarriko du.

2. Lursailak eta higiezinak Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan memoriaren toki gisa inskribatzeak berekin dakar haien onura publikoa edo interes soziala deklaratzeko, nahitaezko desjabetzerako eta bide-zortasuna baliatzeako, beharrezkoa denean.

### III. TITULUA

#### Memoria historikoaren tokien babes eta zainketa

##### 10. artikulua. Babeserako araubide orokorra.

1. Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako lursail edo higiezinaren titularrek betebeharrak izan behar dituzte kasu guztietan:

a) Ondasun horiek zaindu, babestu eta mantentzea, memoria historikoaren tokiak diren aldetik, haien balioak zainduta daudela bermatze aldera.

b) Ondasunak erabiltzea haien izaerari daxezkion balioekin bateragarria izateko moduan.

c) Ondasunak suntsitu edo honda daitezen eragozteko.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du memoria historikoaren tokien zainketa eta babeserako foru lege honetan ezarritakoarekin bat.

3. Memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuari dagokio aholku ematea zainketarako betebeharrak betetzeko behar diren lan eta jarduketek buruz.

##### 11. artikulua. Betebeharrak.

1. Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako lursail edo higiezinaren jabeek, haien gaineko eskubideen titularrek edo edukizailerik ez direnek betebeharrak izan behar dituzte:

a) Memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuari jakinaraztea edozein titulu, arrazoi edo inguruabar dela-eta inskribatutako ondasunei dagokienez egiten dituzten eskualdaketa edo jarduketak, bai eta horiek jasandako kalteak edo bestelako ukipenak ere.

b) Tokien seinaleztapena egiten uztea, foru lege honen 15. artikuluan ezarritakoarekin bat.

c) Jendeak bisitatzen uztea, gutxienez lau egun hilabetez, aurrez ezarritako egun eta orduetan. Memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuak betebeharrak betetzeko salbuesten ahalko du, osorik edo hein batean, justifikatutako arrazoiak daudenean. Horrez gain, departamentuak ikuskapenak egin ditzan utzi beharko du, eta administrazio publiko eskudunek tokiaren egoeraz eta erabileraz eskatzen duten informazioa eman.

d) Foru lege honek edo antolamendu juridikoak berriaz ezartzen dizkien gainerako betebeharrak guztiak.

2. Edozein inguruabarrengatik norbaitek giza gorpuzkinak aurkitzen baditu Nafarroako hilobimapan mugatutako eremuetan edo hortik kanpo, berehala jakinarazi beharko dio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren baitan memoria historikoaren arloko eskumena duen organoari.

##### 12. artikulua. Betebeharrak ez betetzea.

1. Foru lege honen 10. artikuluan Erregistroan inskribatutako ondasunei dagokienez ezarritako betebeharrak ez betetzeak ahalmena ematen dio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari zuzenean egiteko beharrezkoak diren esku-hartzeak, eta horren berri emanen dio berehala ondasunaren titularrari, memoriaren ondasun hori zaindu eta babesteko beharrezkoa bada.

2. Foru lege honen 10.1 eta 11.1 artikuluetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak ekar dezake Foru Komunitateko Administrazioak nahitaez desjabetzea Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako lursailak edo higiezinak, onura publikoaren edo interes sozialaren kariaz.

3. Foru lege honen 10. eta 11. artikuluetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, departamentu eskudunak hertsapen isunak ezartzen ahalko ditu foru lege honetan xedatutakoarekin bat.

##### 13. artikulua. Babes eta zainketa araubidea.

1. Foru Komunitateko Administrazioak edozein lan edo esku-hartze eteten ahalko du, eta beharrezkoak diren kautelazko neurriak ezarri, ondasun baten osotasuna babesteko, ondoren Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatzeko komeni direnak. Babesteko kautelazko neurrien iraupena ez da hiru hilabetetik gorakoa izan, eta horien barnean eman beharko zaio hasiera dagokion deklarazio prozedurari, hala behar den kasuan.

2. Toki entitateek Foru Komunitateko Administrazioari jakinarazi beharko dizkiote memoriaren toki bati eragiten dioten eraispen, obra edo esku-hartzerako lizentzien eskaerak, jasotzen dituztenak, tramitatzen hasi aurretik.

3. Erregistroan inskribatzea eragin zuten balioak babesteko, beharrezkoa izan da memo-



ria historikoaren arloan eskumena duen departamentuak baimena ematea Nafarroako memoria historikoaren toki batean edozein aldaketa egiteko, haren zainketan eragin dezakeenean; horretarako, tramite hauek bete beharko dira:

a) Baimen eskaerari zainketarako proiektu bat erantsi beharko zaio, honakoak barne: tokiari buruzko azterketa historiko bat, egungo egoeraren diagnostikoa, jarduketarako proposamen bat eta jarduketa betetzeko aurrekontu ekonomiko bat; teknikari eskudunek izenpetu beharko du proiektua.

b) Prozedura ebaztean baloratuko da obraren edo esku-hartzearen proiektua eta inskribatutako ondasunaren balioen zainketan duen eragina, eta adieraziko da lanek bete behar dituzten baldintza bereziak, baldin badaude, bai eta ondasuna babestu eta zaintzeko beharrezkotzat jotzen diren gomendio teknikoak eta zuzentzaileak. Espediente administratiboan Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoaren txostena sartu beharko da. Departamentuak sei hilabeteko epea izanen du baimen eskaerari buruz ebazteko, eskaera egiten den egunetik aurrera kontatuta. Epe hori berariazko ebazpena jakinarazi gabe iraganik, interesdunak ulertu beharko du baimen eskaera ezetsi egin dela.

c) Ulertuko da baimena iraungi dela urtebete iragaten bada eskaeraren xede ziren jarduketak hasi gabe.

4. Memoria historikoaren arloko eskumena duen departamentuak galarazten ahalko du Erregistroan inskribatutako memoria historikoaren toki batean eraispena edo edozein motatako lan edo esku-hartzea, aurreko apartatuan aipatzen den baimenik ez badu.

5. Aurreko apartatuetan arautzen den guztia aplikatuko da Erregistroan prebentziozko idatzoharrarekin jasota dauden memoria historikoaren tokietako jarduketetan.

**14. artikulua.** Lurraldearen antolamenduko, hirigintzako eta ingurumeneko tresnei dagokien babesa.

1. Lurralde eta hirigintzaren plangintzako tresnetan, memoria historikoaren tokiei edo Erregistroan prebentziozko idatzoharrarekin jasota daudenei eragiten badiete, ondasun horien babeserako eskatzen den babes bereziko araubidearekin bat datozen antolamendu determinazioak ezarriko dira.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako ondorioetarako, plangintzarako espediente horiek memoria

historikoaren arloan eskumena duen departamentuaren nahitaezko adostasuna izan beharko dute.

3. Aurreko apartatuan aipatzen den txostena sei hilabeteko epean emanen da eskatzen denetik hasita. Epe horretan eman ezean, aldekoa dela ulertuko da.

4. Indarreko legeriaren arabera ingurumeneko prebentzio eta kontrolerako tresnen menpe dauden jarduketan kasuan, behar diren babes eta kautelazko neurriak hartuko dira Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatuta edo prebentziozko idatzoharrarekin jasota dauden ondasunak zaintzeko.

#### IV. TITULUA

##### Nafarroako memoria historikoaren tokien eta haien balioen zabalkundea eta hedapena

**15. artikulua.** Nafarroako memoria historikoaren tokien seinaleztapena.

1. Arlo honetan eskumena duen departamentuak seinaleztapena eta gertatutakoa interpretatzeko bitartekoak ezarriko ditu Nafarroako memoria historikoaren toki bakoitzean, eta ezarriko du zein diren zabalkunderako egoki diren materialak, baldintzak eta bideak, irisgarritasun unibertsalaren arloko indarreko araudian ezarritakoarekin bat.

2. Departamentuak ezarriko du memoria historikoaren tokien identitate grafikoa, seinaleztapen eta hedapen ofiziala egiteko, identitate korporatiboaren arloko araudi indardunarekin bat.

**16. artikulua.** Nafarroako memoria historikoaren tokien mapa.

1. Memoria historikoaren arloko eskumena duen departamentuak mapa digital bat egin eta eguneratuta izanen du, herritar ororentzat sarbidea izanen duena; bertan adierazita egonen da Nafarroako memoria historikoaren tokien kokaleku geografikoa eta han gertatutakoaren berri emanen da.

2. Departamentuak, posible denean toki entitateekin eta memoriaren aldeko elkarteekin elkarlanean, memoria historikoaren ibilbideen diseinua sustatuko du, gertaera hauek ezagutzera emateko eta etorkizuneko belaunaldiei bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen errespetuaren balioak transmititzen laguntzeko.

**17. artikulua.** Zabalkunderako jarduerak.

1. Memoria historikoaren arloko eskumena duen departamentuak behar diren neurriak hartuko ditu memoria historikoaren tokien hedapena eta zabalkundea egiteko, bai eta ordezkatzan dituzten balioena ere.

2. Bestelako ekimenak ukatu gabe, departamentu horrek honakoak sustatuko ditu:

a) Unibertsitateekiko eta ikerketa zientifikorako zentroekiko elkarlana Nafarroako memoria historikoaren tokien inguruan gertatutakoa aztertu eta ikertzeko.

b) Memoria duten eskolen programa bat, Nafarroako memoria historikoaren tokiak eta han bizitako gertaerak curriculumaren jardueretan txertatzea sustatzeko; helburua izanen da bake kultura sustatzea hezkuntza maila guztietan, bai eta errespetuan, elkartasunean eta demokrazia areagotzean oinarritutako balioak ere.

c) Elkarlanean aritzea memoriaren aldeko elkarteekin eta Nafarroako toki entitateekin, Nafarroako memoria historikoaren tokien balioa nabarmenduko duten eta Erregistroan inskribatzea eragin zuten gertaerak oroituko dituzten jarduerak gauzatzeko.

3. Foru Komunitateko Administrazioak lagunduko du memoria historikoa eskurabidean jartzen informazio eta komunikazio teknologien bidez, eta haiek erabiliz zabalduko du Nafarroako memoria historikoaren tokiei buruz beharrezkoa den informazio guztia. Horrek bere baitan hartzen ditu bisita birtualak, memoriaren ondare historiko gisa garrantzi berezia duten tokietan.

## **V. TITULUA** **Zehapen araubidea**

### **18. artikulua.** Araubide juridikoa.

1. Foru lege honetan ezarritako betebeharrak urratzen dituzten egiteak edo ez-egiteak titulu honetan xedatutakoaren arabera zehatuko dira, ezertan baztertu gabe egon daitezkeen beste erantzukizun batzuk.

2. Memoria historikoaren tokien arloko zehapenak jartzeko ahalmena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokio.

3. Zehapen prozedura hastera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren barruan memoria historikoaren arloko eskumena duen departamentuari atxikitako organo eskudunari dagokio.

4. Foru lege honetan eta legea garatzeko erregelamenduetan aurreikusten ez den orotan, zehatzeko ahalmena arloaren gaineko Estatuko araudi oinarritutakoan eta Foru Komunitatekoan xedatutakoaren arabera izanen da.

### **19. artikulua.** Erantzuleak.

Foru lege honetan araututako arau-hausteen erantzuleak horien egileak dira, pertsona fisikoak edo juridikoak izan.

### **20. artikulua.** Arau-haustea.

1. Memoria historikoaren tokien arloko arau-hauste administratiboak dira foru lege honetan ezarritako egiteak eta ez egiteak, baita zabarkeria hutsezkoak badira ere, eta oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke.

2. Arau-hauste oso astunak hauek izanen dira:

a) Indusketak egitea 13. artikuluan ezarritako baimena izan gabe.

b) Segurua denean lursail batean giza gorpuzkiak daudela, desagertutako biktimenak, lursail horretan eraikitzea edo lurak mugitzea 13. artikuluan aipatzen den baimena izan gabe.

c) Nafarroako hobi-mapan sartutako lurretan biktimen hilobiak suntsitzea.

d) Zainketarako betebeharra ez betetzea, 10. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, horren ondorioa denean Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako ondasunak galdu, suntsitu edo kalte konponezinak eragitea.

3. Arau-hauste astunak hauek izanen dira:

a) Nahi gabeko aurkikuntzak jakinarazteko betebeharra ez betetzea, justifikatutako arrazoirik gabe, 11.2 artikuluekin bat.

b) Nafarroako memoria historikoaren toki bat zaindu eta mantentze lanak egiteko betebeharrak ez betetzea, arau-hauste oso astuna ez denean.

c) Administrazioa bere zaintza edo ikuskapen eginkizunak betetzen ari dela, ikuskapen lanari trabak jartzea.

d) Nafarroako memoria historikoaren toki batean edozein obra edo esku-hartze egitea horretarako baimenik gabe, non eta ez den arau-hauste oso astuna.

4. Arau-hauste arinak hauek izanen dira:

a) Nafarroako memoria historikoaren tokietan bisita publikoa egiten uzteko betebeharra ez betetzea.

b) Nafarroako memoria historikoaren tokietako espazioei edo altzariei kalteak egitea, arau-hauste astuna edo oso astuna ez denean.

c) Nafarroako memoria historikoaren toki batean edozein obra edo esku-hartze egitea horretarako

ko 13. artikuluan aipatzen den baimena izan gabe, arau-hauste astuna edo oso astuna ez denean.

5. Erregistroan inskribatzen diren Nafarroako memoria historikoaren tokiei dagokienez artikulua honetan tipifikatzen diren arau-hausteak prebentziozko idatzoharra duten ondasunei ere dagokiela ulertuko da, 7.b) artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

#### **21. artikulua.** Zehapenen mailaketa.

1. Honako hauek dira arau-hausleen erantzukizuna larriagotzeko inguruabarrak:

a) Intentzionalitate edo errepikatze maila.

b) Administrazio eskudunari laguntzeko uko egitea, legez kontrako obra edo esku-hartzeak edo gaizki egindakoak eteteko agindu administrazioak betetzeko orduan.

c) Jarduketa ustez legeztatzen duten egitatezko kasuak aldatzea, edo jarduketaren legezotasuna frogatzen duten agiriak faltsutzea.

d) Berrerorketa. Berrerorketa egonen da, aurretik arau-hauste bat egin eta zehapena jarrita, hura jakinarazi eta hurrengo urtean mota bereko beste arau-hauste bat egiten baldin bada. Kasu horretan beharrezkoa izanen da zehapen ebazpena irmoa izatea.

2. Honako hauek dira arau-hausleen erantzukizuna arintzeko inguruabarrak:

a) Arau-haustea ekarri duen jokabideak kalte larririk eragiteko asmorik ez izatea.

b) Obrak geldiaraztea edo jardueran nahiz lur-zoruaren erabileran gelditzea, norberaren borondatez, memoria historikoaren tokien arloko legez-kotasuna betetzeaz arduratzen den agintari edo funtzionario publikoak ohartarazpena egin ondoren.

c) Jarduketa arau-hausleak eragindako kalte konpontzea edo berez arintzea.

#### **22. artikulua.** Erantzukizunetik salbuestea.

Memoria historikoaren tokien arloko arau-hauste baten erantzuleak, zehatzeko eta legezko egoera berrezartzeko jarduketak hasi aurretik, egindako kalteak konpontzen baditu eta kaltetutako errealitate fisikoa lehengoratzen badu, arau-hauste arinengatik legokiokoen erantzukizunetik salbuetsiko da. Arau-haustea astuna edo oso astuna denean, salbuetsita geldi liteke, gainerako inguruabarren arabera.

#### **23. artikulua.** Zehapenak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteei diruzko zehapenak eta zehapen ez-diruzkoak ezartzen ahalko zaizkie.

2. Diruzko zehapenak isunak izanen dira, honako zenbateko hauek izanen dituztenak, arau-haustearen astuntasunaren arabera, eta proportzionaltasunaren printzipioa errespetatuz:

a) Arau-hauste oso astunak: 10.001etik 150.000 eurora bitarteko isuna.

b) Arau-hauste astunak: 2.001etik 10.000 euroa bitarteko isuna.

c) Arau-hauste arinak: 200dik 2.000 eurora bitarteko isuna.

3. Zehapen ez-diruzkoak zehapen osagarriak izanen dira, eta honako hauek izanen dira: memoria historikoaren arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko eskubidea galtzea, gehiezin ere bi, hiru edo bost urtez, arau-hauste arin, astun eta oso astunen kasuan, hurrenez hurren; eta memoria historikoaren arloan jasotako diru-laguntza edo laguntza publikoa osorik edo partzialki itzultzea. Zehapen osagarri horiek ezarri eta mailakatzeko, bidezkoak direnean antolamendu juridikoaren arabera eta bermeak zorrotz betez, egitateen larritasuna eta haien ondorioak hartuko dira kontuan, proportzionaltasunaren printzipioarekin bat.

#### **24. artikulua.** Prozedura.

1. Memoria historikoaren tokien arloko arau-hausteak salatzeko akzioa publikoa izanen da.

2. Foru lege honetan aurreikusitakoaren arabera arau-haustea izan daitezkeen jarduketan berri duten agintariak behartuta daude halakoak jakinaraztera memoria historikoaren arloan eskuduna den departamentuari.

3. Prozedurari ofizioz emanen dio hasiera organo eskudunak, dela bere ekimenez, dela goiko agintarien agindu baten ondorioz, beste organo batzuen arazoibidezko eskaeraren ondorioz edo herritarren salaketa baten ondorioz.

4. Titulu honetan ezarritako zehapenak ezartzeko, administrazio publikoen araubide juridikoaren eta zehapen-prozedura administratiboaren arloko araudian ezarritako prozedura-xedapenei jarraituko zaie.

#### **25. artikulua.** Zehatzeko eskumena.

Honako hauek izanen dira eskudunak foru lege honetan tipifikatzen diren arau-hausteengatik zehapen-espeditenteak irekitzeko eta ebazteko:

a) Arau-hauste oso astunak badira, memoria historikoaren arloan eskuduna den departamentuaren titularra.

b) Arau-hauste astunak eta arinak badira, memoria historikoaren arloan eskuduna den zuzendaritza nagusiaren titularra.

**Lehen xedapen gehigarria.** 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen aldaketa.

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak aldaketa hauek izanen ditu:

Bat. c) eta d) letrak gehitzen zaikio 5. artikulua-ren 1. apartatuari. Testu hau izanen dute:

“c) Memoria historikoaren tokiekin zerikusia duten gai guztiei buruz indarreko legeriarekin bat eskatzen zaizkion nahitaezko txostenak egitea.

d) Batzordeko buruak planteatzen dizkien gaii buruzko txostenak egitea.”

Bi. Beste testu bat izanen du 9. artikulua-ren 2. apartatuak. Hona testua:

“2. Halako tokizat deklaratzeko ahalko dira altxamendu militarrean, Gerra Zibilean eta diktadura

frankistaren garaian izandako gertakari bereziki nabarmenei lotutakoak; esate baterako, hobi edo lurperatze-leku kolektiboak, atxilotze-lekuak, esklaboek egindako obra publikoak edo garai hartako gertakarietan nabarmendu ziren guneak. Deklarazioa egitea Nafarroako Gobernuari dago-kio, foru lege honen 5. artikuluan araututako batzordeak proposamen loteslea eginda.”

**Bigarren xedapen gehigarria.** Aurrekontuko diru erabilgarria.

Nafarroako memoria historikoaren toki bat deklaratzeko ekimenak berekin dakarrenean gastu publikoa, memoria gisa deklaratu eta inskribatzea formalizatu gorabehera, horietan egin beharreko obren edo jarduketan finantzaketa ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan horretarako diru erabilgarria egoteak baldintzatuko du.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Erregelamendu bidez garatzea.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeak eskatzen dituen erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Irakasleen Babesarako Foru Lege proposamena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Ana María Beltrán Villalba andreak Irakasleen Babesarako Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Irakasleen Babesarako Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Irakasleen Babesarako Foru Lege proposamena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Espainiako Konstituzioak, 27. artikuluan, hezkuntzarako oinarrizko eskubidea aitortzen du. Eskubide horren bermeetako bat, bai esparru akademikoan, bai diziplinakoan, irakasleen autoritatea da, eta horrekin hezkuntza erkidego osoaren eskubideak segurtatzen dira. Irakasleen autoritatea irakaskuntza-eginkizunari eta eginkizun hori betetzeko erantzukizunari datzekien alderdia da, eta halakotzat aitortu beharra dago.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 104.1 artikuluan aipatzen du hezkuntza-administrazioen ardurakoa izanen dela irakasleek jaso ditzaten beren eginkizunaren

garrantzi soziala dela eta merezi dituzten tratua, begirunea eta errespetua; eta 2. apartatuan ezartzen du lehentasunezko arreta eskainiko diotela irakasleen lan-baldintzak hobetzeari eta gizarteak irakaslana gero eta begirune eta aitormen handiagoz har dezan bultzatzeari.

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak beste testu bat ematen dio Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 124.3 artikuluari, eta ezartzen du «zuzendaritza taldeko kideak eta irakasleak agintari publikotzat hartuko» direla; horrenbestez, jotzen da ezen, neurri zuzentzaileak ezartzeko prozeduretan, irakasleek egiaztatutako egitateek egiazkotasun-presuntzioa eta proba-balioa dutela.

Espainian LOGSE-Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea onetsi zenetik hezkuntza arautu duten legeen filosofiak eta azken bi hamarkadetako aldaketa sozialek beraiekin ekarri dute hezkuntza-erakundeen multzoa eta irakaslearen zeregina krisi kezkarria egotea. Alde batetik, ezagutzen eta jakintzen transmisioak gailentasuna galdu du hezkuntzaren xede gisa, eta irakasleak beren funtsezko misioaz eta beren jatorrizko bokazioaz aldentuta dauden zeregin berriei aurre egin beharrean aurkitzen dira. Bestalde, irakasleen esku utzi dira eskola-erakundearenak baino lehenago familiarenak izan beharko liritekeen erantzukizunak.

Horren emaitza izan da irakasleen eginkizunaren balorazio sozialak behera egin duela eta irakasleek autoritatea galdu dutela; eta hori guztia islatu ohi da eskola-indarkeriako gertakari larrietan ez ezik –isolatuak dira, zorionez–, ikasgeletako diziplinarik ezerako joera batean ere. Nolabaiteko maiztasunez, irakasleak bere denbora baliotsuaren erdia eman behar izaten du bere irakaskuntza-lana garatzeko beharrezkoa den ordena mantentzen, eta horrek ikasle guztiak kaltetu eta irakaskuntzaren kalitatea narriatzen du. Horri guztiari gehitu behar zaio irakasteko lana bera oraindik ere konplexuago bilakatu dela ikas-

leen eta haien familien dibertsitate kultural eta sozialaren ondorioz.

Hezkuntzaren kalitatea eta bizikidetasun egokia elkarrekin estu lotutako esparruak dira, errespetatu beharrekoak, eta funtsezko berme bat dira hezkuntza erkidegoko sektore guztien eta, bereziki, irakasleen eskubideetarako, hezkuntza prozesu osoan betetzen duten funtsezko zeregina dela eta.

Foru lege honen helburua da ekarpen bat egitea irakasleek arrakastaz bete ahal izan dezaten gizarteak eskatzen dien zeregin jasoa, hezkuntzarako eskubide indibiduala bermatzea, ikastetxeetako elkarbizitza hobetzea eta hezkuntzaren kalitatea handitzea. Aditzera eman beharra dago ezen irakasleek, daukaten jakintzak ematen dien autoritateaz harago, autoritate instituzionala ere badutela, irakaskuntzaren oinarritzko eginkizuna betetzen baitute eta, horrenbestez, hezkuntzarako eskubide konstituzionalaren berehalako bermatzaileak baitira. Helburua da eginkizun publikoak zaintzea diren horren neurrian, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen funtzionamendu egokia bermatze aldera. Izan ere, zerbitzu horietan asaldurak eragin ditzakete muturreko larritasuneko jokabide nahastaile batzuek, nola baitira erasoak. Horrela, kontuan harturik Konstituzioak ezartzen duela botere publikoek bermatu egiten dutela guztiek hezkuntzarako daukaten eskubidea, irakasleen aurkako hitzezko erasoek nahiz eraso fisikoek hezkuntza-eginkizuna nahasi egiten dute.

## I. KAPITULUA

### Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. Xedea eta helburua.

Foru lege honek xede du irakaslearen figura aitortu, indartu eta bermatzea, eta hark bere eginkizun eta erantzukizunetan diharduenean zor zaizkion itzala eta errespetua sustatzea. Horren helburua da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan bizikidetasun giro egokia bultzatzea eta ikasle guztien hezkuntzarako eskubidearen baliatze erabatekoa bermatzea.

#### 2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Foru lege hau aplikatuko da Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzaren bat ematen duten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta itundu behar bezala baimenduetan.

2. Foru lege honetan ezarritakoa aplikatuko zaie irakasleek ikastetxearen barruan garatzen dituzten zereginei; ikastetxetik kanpo eginda ere eskola-jarduerekin, jarduera osagarriekin, eskolaz kanpokoekin edo haien irakaskuntza-

eginkizunaren jardunarekin zuzeneko zerikusia izan eta hezkuntza-komunitateko kideren baten-gan eragina dutenei; bai eta bestelako hezkuntza-zerbitzu batzuk ematen diren bitartean aurrera eramaten direnei ere, hala nola eskola-garraioa eta eskola-jantokia.

3. Foru lege honetan ezarritakoa orobat aplikatuko zaie irakaslearen izaera profesionala arrazoi duten jokabideei ere, eskola-barrutiaz kanpo gertatzen direnean ere.

#### 3. artikulua. Printzipio orokorrak.

Hona lege honen oinarrian dauden printzipio orokorrak:

a) Denek hezkuntzarako daukaten eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 27.1 artikuluan jasota dagoena.

b) Hezkuntza eta kalitatezko prestakuntza, pertsonen aurrerabide indibidualerako eta gizartearen etorkizunerako funtsezko tresna gisa.

c) Hezkuntza-erakundea zutabe gisa, bizikidetasun, errespetu, tolerantzia eta pluraltasunaren balioak ikastekoa.

d) Irakaslana irakaskuntzaren kalitatearen funtsezko faktore gisa hartzea, eta herritar arduratsuak hezteko ezinbesteko faktore gisa.

e) Irakaslea ikaskuntza-prozesuko eta ikasleen garapen pertsonalerako funtsezko figura gisa, erantzukizun, agintaritzaren eta prozesu hori bermatzeko ezarrita dagoen autonomia dituela.

f) Ikastetxeetako bizikidetasun-arauekiko errespetua, haiek betetzeko bitarteko egokiekin, hezkuntza-jarduera garatzeko oinarri gisa.

g) Hezkuntza-erkidegoko kide guztien eskubide guztien baliatzearekiko eta betebeharren beteetzekiko errespetua.

#### 4. artikulua. Irakasle-eginkizuna betetzearen arloko eskubideak.

Irakasleei, beren irakaskuntza-eginkizunean dihardutela, honako eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Beren identitatea, osotasuna eta duintasuna errespetatzea diezazkieten ikasleek, haien gurasoek, ahaideek, legezko ordezkariak, gainerako irakasleek eta ikastetxean lanean diharduten beste langileek nahiz hezkuntza administrazioak, bai eta haiengandik pertsona gisa izan behar duten begirunea jasotzera ere.

b) Eskola-jardueren, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoaren garapenean zehar, beren eginkizunen esparruan beharrezkotzat jotzen

dituzten erabakiak hartzeko eskubidea, bizikidetasuneko eta errespetuzko giro egokia mantentze aldera, irakaskuntzaren kalitaterako funtsezko faktore gisa; eta, ikasleek araudi indardunaren arabera dituzten eskubideak errespetatuta, beren eginkizunetan jardutean berehalakotasun-, proportzionaltasun- eta eraginkortasun-printzipioen arabera jokatzeko eskubidea.

c) Familien edo legezko ordezkarien lankidetzarako eskubidea, bizikidetasun-arauak betetze aldera.

d) Beren irakaskuntza-eginkizunen araberrako babes juridikorako eskubidea.

e) Hezkuntza Administrazioarengandik behar diren babes eta prestakuntza izateko eskubidea. Administrazio horrek zainduko du irakasleek jaso egiten dituztela betetzen duten zereginaren garrantzi sozialaren arabera dagokien tratua eta begirunea.

## II. KAPITULUA

### Irakasleen babes juridikoa

#### 5. artikulua. Autoritate publikoa.

Zuzendariek eta zuzendaritzako gainontzeko kideek, bai eta irakasleek ere, autoritate publiko izaera izanen dute esleiturik dituzten gobernu-, irakaste- eta diziplina-botereak egikaritzean, eta ordenamendu juridikoak izaera horri aitortzen dion babesa edukiko dute.

#### 6. artikulua. Egiazkotasun-presuntzioa.

Zuzenketa- eta diziplina-jarduketetan dihardutelarik irakasleek egiaztatutako gertakariak egiazkotasun-presuntzioa edukiko dute, erregelamendubidez ezarritako baldintzak betetzen dituen dokumentu batean idatziz jasotzen direnean, horrek ezertan baztertu gabe kasuko eskubide edo interesak defendatze aldera seinala edo aurkez daitetzkeen frogak.

#### 7. artikulua. Laguntza eman beharra.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko hogeita hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, ikastetxeek zilegi izanen dute familiei edo ikasleen legezko ordezkariari edo, kasua bada, erakunde publiko eskudunei, eskatzea behar den lankidetzara, hezkuntza-eginkizuna aurrera eramateko behar den informazioa eskuratzekoa, bai eta ikastetxeetan bizikidetasuna bermatuko duten arauak aplikatzekoa ere. Ikasleengan biltzen diren inguruabar pertsonal, familiar edo sozialei buruzko informazioari dagokionez, uneoro bermatuta egonen da intimitaterako eta datu pertsonalen babesarako eskubidea, Izaera

Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoari jarraituz.

#### 8. artikulua. Laguntza juridikoa.

Hezkuntza-administrazioak taxuzko neurriak hartuko ditu, ziurtatze aldera irakasle guztien babes eta laguntza juridiko egokia, bai eta haien erantzukizun zibilaren estaldura ere, haien jardun profesionaletik eta foru lege honen 2.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz betetzen dituzten eginkizunetatik heldu diren gertakariari dagokienez.

## III. KAPITULUA

### Ikastetxeetako bizikidetasuna

9. artikulua. Ikastetxeetako bizikidetasun-arauak.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 124. artikuluan eta Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz, ikastetxe bakoitzak bere antolamendu- eta funtzionamenduarauak ezarriko ditu, horien barne direla bizikidetasun-planaren betetzea bermatuko dutenak. Arau horiek foru lege honetan ezarritakoari egokituko zaizkio, bai eta Foru Komunitateko ikastetxeetako bizikidetasuna arautzen duen esparruko erregelamenduzko xedapenetan ezarritakoari ere.

#### 10. artikulua. Delituak eta faltak jakinaraztea.

Ikastetxeko zuzendaritzak aldi berean Ministerio Fiskalari eta Hezkuntza Departamentuari jakinaraziko die eskolako bizikidetasuna dela-eta gertatutako edozein gorabehera, delitua edo falta izan daitekeena, horrek ezertan eragotzi gabe behar diren kautelazko neurriak hartzea.

11. artikulua. Behin-behineko kautela-neurriak.

1. Ikastetxeko bizikidetasun-arauen aurkakoa den jokabideren bat gertatzen denean, eta jardueren garapen arrunta bermatzeko beharrezkoa bada, irakasleak edo ikastetxeko zuzendariak behin-behineko kautela-neurriak hartu ahalko ditu, proportzionaltasun-printzipioari jarraituz.

2. Ikasle adingabeen gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi eginen zaie kautela-neurriak hartu direla.

3. Zuzendariak zilegi izanen du hartutako behin-behineko kautela-neurriak edozein unetan errebokatu edo aldatzea.

**12. artikulua.** Erantzukizuna eta erreparazioa.

1. Irakasleen aurkako eraso fisiko edo moral gisa tipifikatutako jokabideak egiten direnean, eragindako kalte moralerako erreparazioa eman beharko da, barkamena eskatuz eta egitateetan izandako erantzukizuna aitortuz, modu publikoan zein pribatuan, egitateen izaerari dagokion gisan, eta zuzenketa ezartzeko organo eskudunak erabakitakoari jarraituz. Hori, halere, ez da eragozpena izanen legedi indardunaren arabera sortu ahal izan den balizko erantzukizun zibila eskatu ahal izateko.

2. Ikasleak behartuta daude banaka zein kolektiboki, nahita nahiz zuhurtzigabekeriaz egin dituzten kalteak konpontzera, instalazioetan, ikastetxearen materialetan eta hezkuntza-erkidegoko beste kide batzuen jabetzetan egiten dituztenean; edo, bestela, beren gain hartzera haiek konpontzearen kostu ekonomikoa. Halaber, kasua bada, lapurtutakoa itzuli beharko dute. Gurasoek edo legezko ordezkariak dagokien erantzukizun zibila hartuko dute beren gain, foru legean ezarritako terminoetan.

**IV. KAPITULUA****Administrazioaren betebeharrak****13. artikulua.** Leihatila bakarra.

Hezkuntza Administrazioak Irakaslearen Baberako Leihatila Bakarra sortuko du: zerbitzu zentralizatu bat izanen da, ikuskatzaile espezializatu batek koordinatua, eta irakasleentzako erreferentzia bat izanen da, berarengana jo dezaten gatazkaren bat egonez gero.

Lehentasunez artatuko dira arrisku bereziko ikastetxeetan lan egiten ari diren irakasleak.

**14. artikulua.** Behatokia.

Administrazio Publikoak behatoki bat paratuko du erasoak kuantifikatzeko. Organo horrek modu sistematikoan bilduko ditu eraso-izaera duten gertakariak, egoerari buruzko diagnostiko bat egin eta neurriak hartzeko.

**15. artikulua.** Zabalkundea.

Nafarroako Gobernuak urtero zabalkunde-kanpaina bat egingen du gizartean, zeinean mezua izanen baita irakasleek Gobernuaren izenean lan egiten dutela belaunaldi berriak hezten.

**Xedapen gehigarri bakarra.**

Foru lege honek indarrean mantentzen du Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua.

**Azken xedapenetako lehenengoa.** Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau gauzatzeko eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.



---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baititu Bardeako tiro poligonoan urriaren 17an eta 19an egin diren su errealeko maniobra militarrek, eta tiro poligonoa eraistea eskatzen baitu.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatu egiten dituela Bardeako tiro poligonoan urriaren 17an eta 19an egin diren su errealeko maniobra militarrek.

2. Nafarroako Parlamentuak Bardeako tiro-poligonoa eraistea eskatzen du”.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie atzo Melillako hesian hil zen pertsonaren familia, lagun eta hurbileko emigrante-komunitateari.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Elkartasuna adierazten die atzo Melillako hesia gurutzatu eta Espainiako lurraldera iritsi nahian zebilela atzo hil zen gizonezkoaren familia, lagun eta, oro har, hurbileko emigrante-komunitate guztiari.

2. Ulertzen du goian deskribaturiko gertaera guztiak (\*) Europaren eta Espainiaren migrazio-politikaren porrot berri bat direla.

3. Bidezkotzat jotzen du egungo legedia indargabetzea; izan ere, migratzaileen oinarrizko eskubideekiko errespetua sustatu eta bermatu beharrean, errepresio-, jazarpen- eta kriminalizazio-mekanismoak ezartzen ditu horien aurka –Atzerritartasun Legea eta Mozal Legea–”.

(\*) Deskribaturiko gertaerak adierazpen proposamenaren zioen azalpenean agertzen dira. Hona hemen testua:

“Atzo, urriak 21, igandea, beste gizon bat hil zen Maroko eta Melilla bereizten dituen hesia gainditzen saiatu zenean. Gainera, 19 pertsona zauritu ziren. Hiriko Gobernu Ordezkaritzak emandako informazioen arabera, heriotza bihotz-biriketako geldialdiaren ondorioz gertatu zen”. Ehunka dira atzo berriro muga zeharkatu eta Espainiako Estatura iristen saiatu ziren migratzaileak, nahiz eta mugan izugarriko segurtasun falta izan, etorkinei pasatzea eragozteko bertan ezarritako “segurtasun neurriak” direla medio. Hala ere, milaka pertsonak zeharkatzen dute urtean –Ceutako muga ere kontuan hartuta– eta beste milaka batzuk dira, gehienak Saharaz hegoaldeko jatorrikoak, Ceutako mugan daudenak, muga zeharkatzeko aukeraren zain. Era berean,

badakigu Melillako Etorकिन Aldi Baterako Egonaldirako Zentroan 900 lagundik gora daudela egun, eta kopuru hori asko handitu dela azken urtean, migratzaile asko iritsi baitira Hiri Autonomora.

Bestalde, ostiral honetan Alucheko Atzerritarren Internamendu-zentroan beste ihesaldia-ahalegin bat egin zuten bertan barneratuek, eta horietako bat zauritua izan zen, bai eta Polizia Nazionalaren hamaika agente ere. Azken hilabeteotan istilu dezente izan dira Atzerritarren Internamendu-zentro horretan matxinada eta ihesaldien ondorioz, eta Madrileko SOS Arrazakeriak aurtengo uztailean eginiko txosten baten arabera, Alucheko Atzerritarren Internamendu-zentroan dauden migratzaileek gutxienez 15 gose greba eta 3 talde-protesta edo matxinada baketsu egin dituzte 2014 eta 2017 bitartean; halaber, bere buruaz beste egiteko 7 saiakera eta 11 ihes-ahalegin izan dira. 2017ko uztailean, elkarte horrek salaketa aurkeztu zuen Madrileko guardia epaitegi

batean, barneratu bati eginiko balizko eraso eta ezarritako zigor neurrigabea iker zitezten eskatzeko, horrek zentroko baldintza kaskarreatatik eta zaintzaileen aldetik jasandako tratu laidogarrigatik protesta egin ondoren.

Arestian azaldutako gertakariak ez dira Europar Batasunak sustatutako eta Espainiakoa bezalako gobernuek aldeztutako migrazio politikaren sekulako porrotaren beste adibide bat besterik. Europa Gotorlekua, bere mugak kanporatzearen bidez eta herrialde pobretuetatik edo gatazkan daudenetatik datozen mugimendu migratzaileen aurkako mekanismoen bidez eraikia, egunero urratzen dituena etxea uztera eta bizi proiektu duin bat eraikitze aukera baten bila gure lurraldeetara iristera behartuta suertatzen diren milioika pertsonen eskubide oinarritzkoenak.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, nekazaritzako lanak egiteko lan-poltsan sartuko diren pertsonen kontratazioa eta lan-baldintzak kontrolatzeko mekanismoei buruzkoa.**

*MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, nekazaritzako lanak egiteko lan-poltsan sartuko diren pertsonen kontratazioa eta lan-baldintzak kontrolatzeko mekanismoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

UAGN sindikatuak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak atzo erabaki zuten Tuteran –hala irakurri dugu prentsan– lan-poltsa bat sortzea nekazaritzako lanak egiteko prest dauden pertsonekin.

Lan-poltsaz gain, zer mekanismo ezarriko dira langile horien kontratazioa eta lan-baldintzak kontrolatzeko?

Iruñean, 2018ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

## **Galdera, Skolae izeneko hezkidetza-programa ezartzeko araudiari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Skolae izeneko hezkidetza-programa ezartzeko araudiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

– Departamentuak zer araudi eta edukiren arabera ezarriko du Skolae deitutako hezkidetza-programa, derrigorrezkoa Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe guztietan?

Corellan, 2018ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Skolae izeneko hezkidetza-programan familiek parte hartzeari buruzko araudia ez betetzeari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Skolae izeneko hezkidetza-programan familiek parte hartzeari buruzko araudia ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntza Batzordean erantzun dakion:

– Departamentuak Skolae deitutako hezkidetza-programan zergatik urratu du familiek parte hartzeari buruzko araudia?

Corellan, 2018ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

**Galdera, Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 4ko 5956/2017 Autoaren ondorioei buruzkoa (horren bidez, errefusatu egin da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren uztailaren 5eko 337/2017 zenbakiko epaiaren aurka Nafarroako Gobernuak aurkeztutako kasazio-errekurtsoa).**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 4ko 5956/2017 Autoaren ondorioei buruzkoa (horren bidez, errefusatu egin da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren uztailaren 5eko 337/2017 zenbakiko epaiaren aurka Nafarroako Gobernuak aurkeztutako kasazio-errekurtsoa).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Batzordean ahoz erantzun dakion:

– Zer ondorio ditu Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 4ko 5956/2017 Autoak, zeinaren bidez errefusatu egin baita Nafarroako Gobernuak aurkeztutako kasazio-errekurtsoa, zuzendurik zegoena Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako uztailaren 5eko 337/2017 epaiaren aurka, zeinak deuseztatu egin baitzuen Hezkuntza Departamentuan bitarteko irakasleak kontratatzeke zerrenda lehenetsia bertan behera utzi izana?

Corellan, 2018ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

**Galdera, Nafarroako errepedeen sarerako finantza-iturrien gaineko azterlanean egindako lanen balorazioari eta datu-aurrerapenari buruzkoa.**

*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako errepedeen sarerako finantza-iturrien gaine-

ko azterlanean egindako lanen balorazioari eta datu-aurrerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Guzmán Garmendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garaipen Ekonomikorako kontseilari eta Nafarroako Gobernuako lehendakariorde denari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2018ko ekainaren 5ean Deloitte enpresari 96.500 euroan esleitu zitzaion 'Nafarroako errepedeen sarerako finantza-iturrien gaineko azterlana' egitea. Azterlana egiteko 6 hilabeteko epea bete ez den arren, honezkero beteta egon beharko liriteke esleipen-hartzailea betetzera behartuta dagoen zenbait fase; adibidez, A fasea –Finantza-

beharrizanen estimazioa– eta B fasea –Errepideen arloko beharrizanak finantzatzeko iturri potentzialak–; eta posiblea zatekeen are C eta D faseak ere galdera hau egiten den unean beteta egon izana (horietan, inpaktuak baloratzen dira eta laburpen exekutiboa egiten da, hurrenez hurren). Halaber, baldintza-agiri horren arabera, jarraipen-bilera bat egin beharko litzateke hileror.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio eta zer datu-aurrerapen egin dezake Nafarroako errepedeen sarerako finantza-iturrien gaineko azterlaneko datuei eta egindako lanei buruz?

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

---

**Galdera, amatasun eta aitatasunarengatiko prestazioetako PFEZaren atxikipena itzultzeari dagokionez Euskal Foru Ogasunek egindako iragarpenari buruzkoa.**

*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, amatasun eta aitatasunarengatiko prestazioetako PFEZaren atxikipena itzultzeari dagokionez Euskal Foru Ogasunek egindako iragarpenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Auzitegi Gorenaren epaia ikusita, euskal foru ogasunek iragarri dute amatasun-prestazioengatiko atxikipena itzuliko dutela.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du euskal foru ogasunek amatasun eta aitatasunarengatiko prestazioetako PFEZaren atxikipena 2014ko atzeraeraginez itzultzeari buruz?

Iruñean, 2018ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

## **Galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-informazioko sistemen hobekuntza bultza dezan, endometriosiari dagokionez.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-informazioko sistemen hobekuntza bultza dezan, endometriosiari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko martxoaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: Nafarroako Gobernua premiatzea osasun-informazioko sistemen hobekuntza bultza dezan, endometriosiari dagokionez. Zein da erabaki horren betetze-egoera?

Iruñean, 2018ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da udalen musika eskolen finantzaketa autonomikoa berreskura dezan.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da udalen musika eskolen finantzaketa autonomikoa berreskura dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko otsailaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: Nafarroako Gobernua premiatzea udalen musika eskolen finantzaketa autonomikoa berreskura dezan, horien fun-

tzionamendurako, ekipamendurako, instalazioetarako eta musika-tresnen erosketa eta konponketarako, eta udal guztientzako finantzaketa-esparru egonkor bat berma dezan. Zein da erabaki horren betetze-egoera?

Iruñean, 2018ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

---

## **Galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur Hezkuntzako zikloa Hezkuntza Departamentuak kudea dezan.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur Hezkuntzako zikloa Hezkuntza Departamentuak kudea dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzea, Haur Hezkuntzako duen hezkuntza-izaera ukaezina ikusita, aipatu zikloa departamentuak berak kudeatzearen alde egin dezan, eta, helburutzat doakotasuna eta sare bakarra izanik, hezkuntza arloko eragileekin batera plangintza bat diseina dezan, fasez fase gauza daitekeena. Zein da erabaki horren betetze-egoera?

Iruñean, 2018ko urriaren 18an



## **Galdera, eskumen berriak eskuratze aldera Estatuko Gobernuaren aitzinean egindako urratsei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, eskumen berriak eskuratze aldera Estatuko Gobernuaren aitzinean egindako urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Eskumen berriak eskuratze aldera Estatuko Gobernuarekin elkarrizketak hasteari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

- Zer urrats egin dira orain arte?

Iruñean, 2018ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Osoko Bilkurak onetsitako mozioa betetze aldera 787/2001 Foru Agindua aldatzeari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Osoko Bilkurak onetsitako mozioa betetze aldera 787/2001 Foru Agindua aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osoko Bilkurak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez premiatu baitzen alda zedin Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilariaren irailaren 10eko 787/2001 Foru Agindua, "Nafarroako Errepideen Sareko zeharbideetan zebra-bide goratuak (abiada mantsotzekoak) instalatzeko Araudi Teknikoa" onesten dituen. Horri dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak noiz aldatuko du 787/2001 Foru Agindua, horrela betetzearren Osoko Bilkurak onetsitako mozioa?

Iruñean, 2018ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Esako urtegiaren eskuineko mazelaren egonkortasunaren eta segurtasun-ebaluazioaren gaineko azterlana kontratatzeari buruzkoa.**

*LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Esako urtegiaren eskuineko mazelaren egonkortasunaren eta segurtasun-ebaluazioaren gaineko azterlana kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Jakin dugunez, Esako urtegiaren eskuin-mazelaren egonkortasunari eta segurtasun-ebaluazioari buruzko azterlan bat egin dadin agindu da. Idatzizko hedabideen arabera, azterlana Geoconsult España, Ingenieros Consultores SA enpresak egin du, 222.337,51 euroan (BEZa barne).

Azaldutako gaiaren honako alderdi hauei buruzko galdera hau onartu eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Estatuko Administrazio Orokorraren esku-menekoa den herri lan baten segurtasuna ikuskatzeari dagokionez Nafarroako Gobernuak izan lezakeen balizko edo ustezko eskumenaren justifikazioa, eta zein lege-xedapenetan ezarrita dagoen hori.

2. Ekimen horren tenore-ontasunaren justifikazioa; izan ere, orain dela hilabete, Trantsizio Ekologikoaren Ministerioak berak berri eman zuen Esaren segurtasunari buruzko azterlan berri bat Bide Ingeniarien Elkargoari agintzeaz, gai horri buruz Ebroko Konfederazio Hidrografikoak jada badauzkan azterlan ugariei gehituko zaiena.

3. Justifikazioa, zer dela-eta uste duen Nafarroako Gobernuak egokia dela eta justifikatuta dagoela 222.337,51 € gastatzea azterlan berri batean; izan ere, Diputatuen Kongresuak irailaren 11n Unidos Podemosen mozio bat baztertu zuen, zeinean auzitan jartzen baitzen Esako urtegia handitzeko proiektuaren segurtasuna eta obrak bukatu aitzin azterlan berriak egitearen aldeko apustua egiten baitzuen.

Iruñean, 2018ko urriaren 11n.

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

## **Galdera, Eneko Suescun Muza jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Eneko Suescun Muza jaunak Irakasleari Laguntzeko Zentroan betetzen duen aholkulari-lanpostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

